**2019ko ekainaren 4an Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiaren Ebazpena eman da, hitzez hitz honakoa izanik:**

**Con fecha 4 de junio de 2019 se ha dictado Resolución de la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, del siguiente tenor literal:**

"EBAZPENA, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiarena, eranskinean jasotako pertsonek Azkoitiko Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa-prozedurako praktikaldia gainditu dutela aitortzen duena.

"RESOLUCIÓN de la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, por la que se declara que las personas relacionadas en el anexo han superado el periodo de prácticas del procedimiento selectivo para ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Azkoitia.

2016ko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 43. zenbakian, argitaratu zen Azkoitiko Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa- prozedurarako deialdia.

En el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 43, de 4 de marzo de 2016, se publicó la convocatoria del procedimiento selectivo para ingreso en la categoría de Agente de la Policía Local de Azkotia.

Oposizio-lehiaketa garatu ondoren, Euskal Herriko Poliziari buruzko legearen 51. atalarekin bat etorriz, hautatutako hautagaiek prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat gainditu behar dituzte. Hori bera adierazten dute ere deialdiaren lehenengo eta hamabigarren oinarriek.

Tras el desarrollo del concurso oposición, de conformidad con el artículo 51 de la Ley de Policía del País Vasco, los aspirantes seleccionados deben superar un curso de formación y un periodo de prácticas. Así también lo disponen las bases primera y duodécima de la convocatoria.

Aipaturiko hautaketa-prozedura aurreikusitako prestakuntza-ikastaroa gainditu ondoren eta praktikaldiko epea garatu ondoren, Zuzendaritza honetan jaso da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Ebaluazio Arloaren jakinarazpena, 2019ko maiatzaren 30ekoa, zeinaren bitartez jakinarazten baita eranskinean jasotako pertsonek praktikaldia gainditu dutela.

Una vez superado el curso de formación previsto en el mencionado procedimiento selectivo, y desarrollado el periodo de prácticas del mismo, se ha recibido en esta Dirección la comunicación del Área de Evaluación de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, de fecha 30 de mayo de 2019, mediante la que se informa que las personas relacionadas en el anexo han superado el periodo de prácticas.

Aurreko guztiarengatik, eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema

Por todo lo anterior y visto lo establecido en los los artículos 20 y 23 de la Ley

Ctr. N-104 - Km. 356
01192 ARKAUTE (Araba)
Tef. 945 28 52 00
Fax 945 28 67 55

antolatzeko 15/2012 Legearen 20. eta 23. Artikuluetan, baita Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen 315/1994 Dekretuaren 31.1. artikuluan ere ezarritakoari jarraiki,

15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskad, y el artículo 31 apartado 1. del Decreto 315/1994 por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

LEHENENGOA.- Eranskinean jasotako pertsonak GAI direla aitortzea, Azkoitiko Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa-prozedurako (2016ko martxoaren 4ko EHAA, 43. zenbakia) praktikaldian.

PRIMERO.- Declarar APTO a las personas relacionadas en el anexo, en el periodo de prácticas previsto en el procedimiento selectivo para ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Azkotia (BOG. nº 43, de 4 de marzo de 2016).

BIGARRENA.- Ebazpen honen jakinarazpena udalera igortzea, bertako iragarki-oholean argitara dadin eta interesdunei jakinarazi dakien, egoki diren errekurtsoen berri emanez.

SEGUNDO.- Disponer la remisión de la notificación de la presente resolución al Ayuntamiento, a fin de que se publique en el Tablón de Anuncios del mismo y se notifique a las personas interesadas con indicación de los recursos pertinentes.

HIRUGARRENA.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitara bedi.

TERCERO.- Publíquese en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Arkauti, 2019ko ekainaren 4a.

Arcaute, 4 de junio de 2019.

Sinadura irakurtezina/Firma ilegible. Fdo./Iztua.: Malentxo Arruabarrena Julián. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia. Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias".

ERREKURTSOAK

RECURSOS

Administrazio-bidea agortzen duen ebazpen honen kontra, interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiari aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote hilabeteko epean

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, la persona interesada podrá formular recurso potestativo de reposición ante la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, en el plazo de

argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, zuzenean administrazioarekiko auzien-jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dute.

Aukerako berraztertzeko errekurtsoa aukeratuz gero, ezin izango da aurkeztu administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, ebazpen adierazia eman arte, edo, jarritako berraztertzeko errekurtsoaren presuntziozko ezespena gertatu arte.

Interesdunak jurisdikzioan aurkaratzea aukeratuz gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko dio, bi hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari.

Arkauti, 2019ko ekainaren 4a.

un mes a contar desde el día siguiente a su publicación o notificación, o bien, impugnarla directamente ante el orden jurisdiccional Contencioso-administrativo.

Caso de interponer el recurso potestativo de reposición, no se podrá acudir a la vía jurisdiccional hasta que aquel sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta por silencio

Si la persona interesada optara por la impugnación jurisdiccional, procederá interponer recurso contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación o notificación, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Arcaute, 4 de junio de 2019.

Langileria eta Araubide Juridiko Arloko Burua
Jefe de Área de Personal y Régimen Jurídico

## ERANSKINA / ANEXO

| Izen-abizenak / Nombre y Apellidos | Kalifikazioa / Calificación |
|---|---|
| CHOHAN MADINABEITIA, Adrián | GAI / APTO |
| PADILLA PÉREZ, Gorka | GAI / APTA |
| REZABAL GÁRATE, Joseba | GAI / APTO |

Ctr. N-104 - Km. 356
01192 ARKAUTE (Araba)
Tef. 945 28 52 00
Fax 945 28 67 55